

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA (PERTSONA BAT ZURE ETXERA ETORTZEN DA LAGUNTZERA)

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Desgaitasuna duen 18+ pertsona > Laguntza etxean eta/edo bizitza autonomoa izateko

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio laburtua.](#)

Zertan datza zerbitzu hau?

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren (ELZ) helburua da etxean bizitza autonomoa izateko zailtasunak dituzten pertsonen eta familien beharrak asetzea ([1.2 fitxa](#)) ELZk zailtasun horiek konpentsatzen laguntzen du, pertsonak bere etxean bizitzen jarraitu ahal izateko. Horretarako, laguntza profesionala eskaintzen du etxean, mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko beharrezkoak diren eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko (adibidez, elikadurarekin, higiene pertsonalarekin eta garbiketarekin, mugikortasunarekin, edo jantziekin, jaikitzeke eta oheratzeko laguntza, etab.). Eguneroko bizitzarako beharrezkoak diren bestelako etxeko lanak egiteko laguntza ere eskaintzen du (etxebizitza garbitu eta mantentzeko, arropa garbitu eta lisatzeko, mendekotasuna duten pertsonarentzako otorduak prestatzeko, etab.). Gainera, ELZk zainzaile nagusiarentzako atsedenez-zerbitzu bat barne har dezake. Atsedenez hartzeko modalitate hau mendekotasun egoeran edo -arriskuan dagoen pertsona aldi baterako ELZra sartzearen bidez edo zerbitzu horretan jada eskaintzen den intentsitatea aldi baterako indartzearen bidez eskaintzen da.

Nork jaso dezake zerbitzu hori?

Zerbitzua mendekotasun egoeran dauden adin guztietako pertsoneri zuzenduta dago (I, II edo III graduak). Baita, kasu batzuetan, mendekotasun arriskuan dauden pertsoneri ere.

I. gradua - Mendetasun arina

eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera egiteko laguntza behar duenean, gutxienez **egunean behin**, edo autonomia pertsonalerako aldizkako edo mugatutako laguntza behar

duenean. Mendekotasuna baloratzeko baremoan (MBB) 25 puntutik 49 puntura.

II. gradua - Mendetasun larria.

Pertsonak eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera egiteko laguntza behar duenean, **egunean bizpahiru aldiz**, baina ez duenean zaintzaile baten etengabeko laguntza nahi edo ez duenean laguntza zabalik behar bere autonomia pertsonalerako. Mendekotasuna baloratzeko baremoan (MBB) 50 puntutik 74 puntura.

III. gradua - Mendetasun oso larria

Pertsonak laguntza behar duenean eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera egiteko **egunean hainbat aldiz**, eta autonomia fisiko, mental, intelektual edo sentzoriala erabat galdua duenez, beste pertsona baten laguntza ezinbestekoa eta etengabea behar duenean edo autonomia pertsonalerako laguntza orokorra behar duenean. Mendekotasuna baloratzeko baremoan (MBB) 75 puntutik 100 puntura.

Zenbat arreta ordu jaso ditzaket?

Asteko arreta-orduak kopurua erabiltzaile bakoitzaren beharrezko araberakoa da, araudiak ezarritako mugen barruan.

Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

Hauek dira baldintza nagusiak:

- Laguntza behar izatea eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak eta/edo jarduera instrumentalak egiteko. Behar hori egiaztatzeko, mendetasun-balorazioa egin behar da, eta ezarritako gutxieneko puntuazioa lortu.
- Euskadin legezko eta benetako bizilekua izatea edo eskaera egiten den udalerrian erroldatuta hamabi hilabete baino gehiago eramatea.
- Bizileku bat izatea, erabiltzailearen egoera bertan egotea eragozten edo larriki zailtzen ez duena, eta erabiltzailearentzat berarentzat edo etxeko langileentzat arriskurik ez dakarrena.
- Osasun-erakundeetan edo erakunde soziosanitarioetan etengabeko laguntza behar duen osasun-egoerarik ez izatea
- Gainera, zerbitzua esleitzeko, erreferentziako profesionalaren preskripzio teknikoa behar da, zeinak ziurtatu behar baitu zerbitzu egokia dela hartzailearen beharrei erantzuteko.

ELZ jaso dezaket beste zerbitzu edo prestazio bat jasotzen ari banaiz?

- ELZ mendekotasunaren arretarako zerbitzu guztiekin bateragarria da, ostatu-zerbitzuetan edo egoitza-zentroetan modu iraunkorrean emandako arretarekin izan ezik.
- Beste zerbitzu edo prestazio ez-ekonomiko batzuekin bateragarri egiten denean, gehieneko intentsitateen murrizketa aplikatuko da. Murrizketa hori ez da aplikatuko telelaguntza-

zerbitzuarekin bateragarri denean.

- Prestazio ekonomikoekin bateragarri egiten denean, prestazio ekonomikoa murriztuko da eta ELZren gutxieneko intentsitatea bermatuko da.
- Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoarekin bateragarria den zehaztea foru-aldundien eskumen-eremuaren parte da.

Zenbat balio du zerbitzu honek?

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ) koordainketari lotuta dago. Irizpide zehatzak udal bakoitzak zehazten ditu, erabiltzaileen gaitasun ekonomikoa eta arreta ordu kopurua kontuan hartuta.

Nori dagokio zerbitzu hori ematea?

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ) ematea Udalen ardura da. Udalek beren langileekin zuzenean eman dezakete zerbitzua, edo zeharka, irabazi asmorik gabeko erakunde edo enpresa baten bidez.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zerbitzuaren eskaera zure auzo, udalerrri edo eskualdeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan egin behar da.

Zerbitzu honetan interesatuta bazaude edo gehiago jakin nahi baduzu, Gizarte Zerbitzuetan lan egiten duten pertsonekin hitz egin dezakezu. Nola funtzionatzen duen eta laguntza hori nola balia dezakezun azalduko dizute. Esaiguzu zure udalerrria eta harremanetarako lekuak eta datuak adieraziko dizkizugu.

Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

[Fitxa laburrera itzuli](#)